

Mitxel Lakuntza:

**“Krisiaren aurrean, gu ezkerreko atera goaz:
‘eskubide gehiago, murrizketa gutxiago’ dioenera”**

Aldaketa garaia dela aldarrikatu du ELAko idazkari nagusiak Maiatzaren Lehenean

Lakuntzaren mitineko adierazpenak

“Langileak garelako gaude gaur kalean, eta langileak garelako ez gaude soilik Bilbon, Donostian, Gasteizen edo Iruñean. Langileak garelako gaur ere Bangladesen, São Paulon, Nairobin, La Pazen, Rojavan, Chicagon edo Atenasen. Langilea izateak elkartzen gaituelako. Klase sozial bat osatzen dugulako, langile klasea: munduaren eta bizitzaren ikuskera propio duena.

Maiatzaren Lehenean, pandemia baten erdian gaudela, are indar gehiago hartzen du elkartasunak, berdintasunaren eta bizitzaren aldarriak.

Gaurkoan, baina, ezin izan dugu Maiatzaren Lehena nahiko genukeen bezala egin.

Manifestazio eskubidea murrizten da, baina lan egitera behartzen gaituzte. Produkzio katea elikatzeko dugun gaitasunaren arabera gara pertsonak; ematen diguten balio bakarra produzitzen dugunaren arabera da.

Arantxa Tapia sailburuak orain urtebete nola edo hala enpresak irekita nahi zituen; orain, berriz, ezin dugu manifestaziorik egin. Sindikatuetako deitutako manifestazioak herri honetako lantoki asko baino seguruagoak badira ere.

Covid agerraldien %70 eta 80 artean lantokietan gertatu dira, Jaurlaritzaren arabera. Mugarren bat jarri dute lantokien funtzionamenduan kutsatzeak murrizteko?

Bat ere ez. Ez dute enpresa bakar bat ere zigortu prebentzio neurriak behar bezala ez betetzeagatik. Baina hiltzen gaituen sistema kriminal hau salatzeke kalera atera nahi dugunean debekatu egiten digute.

Pandemia

Txerto baten prezioa 15 euro da. Munduko jende askorentzat hori da biziaren eta heriotzaren arteko aldea. Sistema kapitalista hau, 15 eurogatik pertsonen bizia bermatzeko ez dena, sistema gaixoa da, ustela.

Diru publikoz finantziatutako txertoak farmazeutika pribatuen esku daude; enpresa hauen negozioa da lehentasuna, ez milioika





**MAIATZAREN
LEHENA** 2021

M1

pertsonaren bizitza. Patente horiek liberatu egin behar dira, berehala; ez da gizalegezkoa hala ez egitea!

Gaur gogoan ditugu pandemiagatik hil diren guztiak. Bereziki gutxieneko osasun arreta jaso ez duten pertsona horiek ditugu gogoan.

Funtsezko langileak

Oroitzapena eta aitortza ere bai. Izan ere, hemen bada jendea bizitzaren jarraipena posible egiten duena. Oinarrizko edo funtsezko langileak. Gehienbat emakumeak: sanitarioak, zaintzaileak, supermerkatuetako kutxetakoak... Izen-abizenak dituzten pertsonak.

Gaur txalo bat eskaini nahi dizuegu; baina benetako txaloa: benetakoa izango da konpromisoekin batera badoa. Eta hemen erakundeetan eta enpresa askotan konpromisorik ez dute hartu: zahar-etxeetako baldintzak hobetzeko konpromisoa, ospitaleen egoera zuzentzekoa, langileen baldintzak duinak izatekoa...

Zahar egoitzetan orain urtebete beren burua zabor-poltsekin babestu behar zuten langileek, beren bizitza eta beren senideena arriskuan jarrita egin behar zuten lan; orain, zahar egoitza batzuetan kaleratzeak daude agureak hil direlako eta lan-kargak murriztu omen direlako.

Horregatik, gure txaloa da zuen lana eta sufrimendua aitortzeko; lan baldintza hobek lortzeko borrokan lagundu zaituztegunon txaloa, sindikatua horretarako baita.

Aldaketa garaia da

Aldaketa garaia dela, ideia hori garatu nahi dugu Maiatzaren lehen honetan. Urkullu Lehendakariak dio ez dela lan erreforma indargabetzeko garaia, ez dela aldaketa fiskala egiteko garaia. Bada, aldaketarako garaia ez dela esaten digutenak dira aldaketak prestatzen ari direnak.

Badakigu aste hauetan bai Bruselan eta Madrilen gauza askotaz hitz egiten ari dela. Izan ere, krisi honen irteera da jokoan dagoena. Eta jokoan duguna hori da: aldaketak edo murrizketak.

Kezkatuta gaude datozen hilabeteetan pent-sioekin eta lan erreformarekin zer gerta daitekeen. Gobernuaren helburua da beranduago jubilatzea, eta pentsio kaskarragoekin. Erretiratzeko adin erreal legezko adinera hurbildu nahi dute, hau da, 67 urtera. Hori da plana. Erabaki horrek datozen urteetan milaka euskal langileri kalte egingo lioke. Murrizketa oso larria litzateke.

Horrek guztioi eragiten digu, bizi guztian lan egin dutenei, baina baita gazteei ere; hauek langabezian eta prekarietatean mantendu nahi dituzte, gazteen langabezia tasa %39koa denean EAEn eta %31koa Nafarroan.

Honen atzean zer dago? Europako funtsak. Milaka milioi euro enpresa handientzat. Azken krisian bankuak lehenetsi zituzten; orain, aldiz, enpresarik handienak. Helburua ez baita trantsizio ekologikoa.

ALDAKETA

GARAIA DA!



**MAIATZAREN
LEHENA 2021**

M1

Sanchezen gobernuak propaganda asko egiten du, eta asko ezkututzen du. Zergatik ezkututzen dira funts horien inguruko dokumentuak; funtsak jasotzeko baldintzak? Albiste onak ez dira ezkututzen. Azken hiletan hori salatu izan dugu. Funts horiek baldintzatuta etorriko dira. Zer eskatzen du Bruselak horren truke? Murritzketak, pentsioetan eta langileen eskubideetan.

Badakigu ere gobernuak, patronala, UGT eta CCOO mahai batean lan erreforma eztabaidatzen ari direla. Zer dakigu horri buruz? Ez dela lan erreforma indargabetuko. Lan Ministroak berak konfirmatu du hori. Albiste txarra, beraz. ELA, Galizako CIG eta Kataluniako Intersindical CSC sindikatuak saiatzen ari gara gobernuak estutzen lan erreforma indargabetzeko.

Ez dakigu kontua non amaituko den, baina ez dugu onartuko bi lerro gorri gaintitzerik.

- Batetik, ez dugu onartuko eragozpenik gure hitzarmenak bertan, Euskal Herrian negoziatzeko. Hau auzi demokratiko bat da. Euskal hitzarmenak ez dira hobeak kasualitatez edo dekretuz, hobeak dira hemengo errealitate sindikala ezberdina delako.
- Bestetik, kaleratze kolektiboak ditugu. Ez da onargarria enpresek jendea hain erraz botatzea; irabaziak dituzten enpresek oztopo legalik gabe kaleratzen dute, une txar bat dutenean edota galera izan dezaketela uste dutenean.

Sanchezek lerro gorri horiek gaintitzen baditu, EAJk eta EH Bilduk bere gobernuari babes ematen jarraituko dute? Ez gaitzazue Madril saldu; horixe eskatu diegu. Ezin dira ontzat eman prekaritateak dakarten erabakiak.

Enpleguaren defentsa

Zer ari gara hilabete hauetan ikusten? Beren enpleguaren alde borrokan ari diren langileak. Hainbat enpresatan: Tubacex, H&M, zaintza sektorea, Eaton, Valvospain... Lan baldintzak hobetzeko egindako grebei balioa eman nahie diegu (Ferrovial, CIE-Gameko, Fundiciones Betiko...) Eta, nola ez, Novaltia: prekaritatearen aurkako mobilizazio duinena izaten ari da.

Bitartean, Eusko Jaurlaritza beste aldera begira dago. Ez du enplegua sortzeko estrategiarik. Begira, bestela, zer gertatu den La Navalekin edo Euskaltelekin; hau enpresa publiko estrategikoa zen, eta Burtsara atera zuten zuzendaritzak 50 milioi euro poltsikoratzeko; orain inbertsio-funts baten esku geratu da.

Hemen estrategia bakarra dago, espekulazioari bide ematea. Bestelako enplegu politika bat behar dugu, ez espekulazioa, ezta propaganda ere.

Bestalde, Jaurlaritza ez da sinesgarria enpleguaz ari denean: bere lantaldeak, langile publikoek, Europako tenporaltasun tasarik handiena jasaten dute. Aurreko astean izan zen grebarekin gogorarazi zioten. Gobernuak, gainera, ez da gauza patronalaren diskurtsotik aldentzeko.



¡REFORMA FISCAL YA!

¡REFORMA LABORAL FUERA!





**MAIATZAREN
LEHENA 2021**

M1

Bizkaiko Cebek patronaleko buruak ere esan du presio sindikalari esker lortutako soldata igoerek orain enpleguari kalte egiten diotela. Zerbaitetan arrazoia emango diogu: hemen soldatak igotzen badira da ELA izeneko sindikatua nagusi delako.

Ez da kasualitatea European zehar greba gehien Euskal Herrian egitea. Langileen borroka eta lortzen diren lan baldintzak lotuta daude, eta hortaz, oso harro gaude.

Patronalak ondo daki benetan arazoa ez direla soldatak. Arazoa da edozein egoeratan etekinak puzten jarraitu nahi dutela. Eta Euskal Herrian enpresek zerga oso gutxi ordaintzen dituztela, edo bat ere ez. Lortzen dituzten etekinetatik, enpresa handiek 100 eurotik 7 besterik ez dute ordaintzen. Hori da benetakoa arazoa.

Erreforma fiskala

Euskal ogasunetan zerga-erreforma galdegin dugu, uda baino lehenago. Bi arrazoi ditugu horretarako: batetik, baliabideak gehitzea eta krisiak gogorren kolpatu dituen sektore eta herritarrak laguntzea (Europako herrialde batzuetan egin dutena). Hau da, inor bidean botata ez geratzea. Bestetik, oraingo zor eta defizit publikoa 2010ekoa baino askoz handiagoa da, eta urte hartan hasi ziren murrizketak. Beraz, Bruselak exijitzen dituen arau fiskalak etorriko dira; bihar ez bada, etzi. European ez da aldaketa handirik gertatu. Jokoan dagoena da krisi honen faktura murrizketen bidez ordainduko

den ala zerga-erreforma bat eginez, gehien dutenek gehiago ordain dezaten.

Zerbait oker dago Estatu Batuetako presidentek berak egin nahi dituen erreforma fiskalak herri honetako alderdi guztiei ezkerretik gaitzen dituenan.

Bilerak eskatu ditugu honetaz hitz egiteko, foru ogasunekin eta Chivite eta Urkulluren gobernuekin. Foru ogasunen aldetik erantzunik ere ez dugu jaso; Urkulluk esan digu gai hau ez dagoela bere esku. Sinestezina.

Bultzada, aldaketak eragiteko

Herri honetan benetan axola duten gaietaz hitz egiteko ez dago mahairik; beste guztia elkarriketa sozialera eramaten dute.

Aldaketak nahi ditugu krisi honi ematen zaion irteera ez dadin izan 2008ko bezala. Gehiegi ikusi eta ikasi dugu ordutik hona. Irteera bakarra ez dago; gu beste aldera goaz, ezkerreko atera. "Eskubide gehiago, murrizketa gutxiago" dioen atera.

Aldaketak behar ditugu, baina badakigu bultzada egin behar dela horiek lortzeko. Kontzientzia kolektiboa sortuz, antolatuz, mobilizatuz.

Aldaketak ez dira berez gertatuko; prestatzen jarraitu behar dugu, bultzatzeko".

Gora munduko langileria!

ALDAKETA

GARAIA DA!